

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekonomia zirkularreko proiektuak egiteko laguntza-deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak. 2021. urtea

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn — 148. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdira aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten erakunde eskatzaileek, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2021eko martxoaren 18an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2021erako ekonomia zirkularreko proiektuak egiteko laguntzen udal-programaren deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak.

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Gasteizko enpresetan ekonomia zirkularreko proiektuak egiteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarriek xede hau dute: Gasteizko enpresek ekonomia zirkularreko proiektuak egin ditzaten konkurrentzia-erregimeneko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Ekonomia zirkularreko proiektuak jotzen da produktuen, materialen, eta baliabideen balioak ekonomian ahalik eta luzeen mantentzen dituen eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dituen ekonomia.

Itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira.

3. oinarria. Enpresa onuradunen betekizunak

Enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetako laguntzen onuradun, edozein forma juridiko dutela ere, baldin eta merkataritza-jarduera bat egiten badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Enpresaren egoitza soziala eta helbide fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea.
- b) Diruz laguntzekoak diren jarduerak Gasteizko udalerriko lantoki batean zuzenean garatzea.
- c) Enpresa txiki edo ertaina izateko betekizunak betetzea eskabidea aurkeztu den unean: 250 enplegatutik behera izatea, urteko fakturazioa 50 milioi euro baino gutxiagokoa izatea eta balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa izatea.
- d) Aurreko betekizunak betetzen ez dituen beste enpresaren batekin loturirik ez izatea, edo horrelakoren batek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.
- e) Betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.

f) Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

4. oinarria. Baliabide ekonomikoak:

Honako partida honen kontura finantzatuko dira deialdian aurreikusten diren dirulaguntzak: 2021/08.23.4331.4.7136, zeinak 50.000,00 euroko zuzkidura baitu.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio zuzkidura hori handitu ahal izango da —Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik—, baldin eta udal-sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

5. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 1ean hasiko da, eta 2021eko ekainaren 30ean bukatuko.

Pertsona edo entitate interesdun bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du, aukeratzen duen modalitatea edozein dela ere.

Eskabideek deialdi honen eranskinetan jasotako ereduari jarraitu behar diote, eta horretarako adierazitako bitartekoen bidez aurkeztu behar dira: Herritarrei laguntzeko bulegoetan, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez —<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/>— eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik legez aurreikusitako gainerako moduetan.

6. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen jardun eta gastuak

Honelako proiektu eta jarduerak lagundu ahal izango dira diruz: ekonomia zirkularraren parametroetan lehiakor eta jasangarriak izate aldera negozio-eredua birdiseinatzeko Gasteizko udalerraren eremuan egiten direnak. Horela, diruz lagundu ahal izango dira erakusteko proiektuak (zerbitzu, produktu berriak, produktuak berrerabiltzekoak) zein merkatuan produktu edo zerbitzu berriak inplementatzeko proiektuak.

Proiektuek ekonomia zirkularrak berezko duen esparruren batean kokatuta egon behar dute:

- Ekodiseinua.
- Serbituzazioa.
- Konponketa aurreratua.
- Berregokitzea.
- Birmanufaktura.
- Birziklatzea aurreratua.
- Bigarren mailako materialak berreskuratzea.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, fakturek zalantzarik gabe egokitu behar zaizkio diruz lagundutako jardueraren izaerari; 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko azaroaren 30era bitartekoak (biak barne), eta honako kontzeptu hauetakoak izan behar dute:

– Proiektuaren jarduerari lotutako ustiatze-materialen eta -hornigaien gastuak (lehengaiak eta bestelako hornigai kontsumigarriak).

– Proiektuaren jarduerarako baino erabiliko ez diren tresna- eta ekipamendu-ondasunak erostea edo egokitzea. Barnean sartzen dira ekipamenduak alokatzeko edo leasingean hartzeko kostuak (diruz laguntzekoa den tarteari dagozkionak), baita proiektuaren helburuak betetzeko ezinbestekoa den prototipo bat fabrikatzeko gastuak ere.

– Proiektuak egitearekin lotutako softwarea.

– Kanpoko aholkularitza-kostuak (laguntza teknikoa, aholkularitza...), betiere proiektua egiten den bitartean era eskusiboan erabiltzen badira; dirulaguntzaren xedea den jardueraren guztizko kostuen ehuneko 60ko muga izango dute. Tipologia horren barruan sartuta dago proiektuaren zati oso espezializatuak eta ezagutza teknikoak — hala nola bizi-zikloaren azterketa (erraztua zein osoa) egitearen kostuak eta proiektuaren arrakastan oinarrituta estandarizatutako metodoaren bidezko “balioespen finantzarioaren txostena” edo bideragarritasun komertzialaren lehenengo azterketak egiteko kostuak— azpikontratazioa, ekodiseinua...

2021eko azaroaren 15a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek baino ezingo dute jaso dirulaguntza.

7. oinarria. Proiektuen balioespena eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Aurkeztutako proiektuek, gutxienez, diruz lagundu daitezkeen 5.000,00 euroko inbertsioa izan beharko dute.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik; horrenbestez, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta — ezarritako dirulaguntzen gehieneko muga errespetatuta— modalitateetako bakoitzeko balioespen-irizpideetara ongien egokitzen diren eskabideek bakarrik jasoko dute laguntza.

Aurkeztutako proiektuen balioespena egiteko, haiek alderatu egingo dira, oinarri hauetan biltzen diren dirulaguntzen modalitateetako bakoitzeko adierazten diren balioespen-irizpideak aintzat harturik —8. oinarria—.

Gutzira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokitzuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 8. oinarriko “Proiektuaren kalitate teknikoa” atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, “Ingurumen Jasangarritasuna” ataleko puntuazioa. Eta, azkenik, “Garapen ekonomiko lokalaren alderdiak” atalekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 50eko izango da, betiere 10.000,00 euroko gehieneko mugarekin —12. oinarrian adierazi da zein gastu lagundu daitezkeen—.

Baldin eta erabilgarri dagoen saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

Enpresa eta urte bakoitzeko dossier bakarra izapidetuko da.

8. oinarria. Hautatzeko eta balioesteko irizpideak

Aurkeztu diren proiektuak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
“Tokiko garapen ekonomikoko alderdiak Proiektuak Gasteizko udalerrian ekonomia-aukerak sortzen laguntzea. Proiektuak Gasteizko ekonomia-jardueran dauden balio-kateetako batean sartzeko duen potentziala (adibidez, lehen eta bigarren mailako lehengaien eskuragarritasuna tokian bertan, produktua eta bere osagaiak ekoizten dituzten enpresak egotea, konponketa- eta birziklatze-enpresak egotea, etab.)”	20
“Proiektuaren kalitate teknikoa Aurkeztutako lan-planaren lantze-, xehetasun- eta koherentzia-maila, kronograma eta jarduerak aurreikusitako helburuekin. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ingurumenekoa eta ekonomikoa Jarduna ebaluatzen adierazleak eta jarraipen- eta neurketa-mekanismoen multzoa, proposatutako jarduketan eraginkortasuna ebaluatzen”	20

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
<p>“Ingurumen-iraunkortasuna Ingurumenaren gaineko eraginak murriztea (hondakinen prebentzioa, atmosferarako emisioak saihestea, lehengaiak aurrezte, etab.) Bizi-ziklo osoaren edo partzialaren ikuspegia (faseetako bati aplikatua) Naturan oinarritutako irtenbideak Proiektuaren eraginak baloratzea, ingurumen-aztarnaren ikuspegitik”</p>	20
<p>“Ekoberrikuntza Eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiltzea Teknologiaren ikuspegitik, proiektuaren heldutasun-maila (TRL)”</p>	20
<p>Ekonomia sozialeko enpresek 5 puntu gehiago jasoko dituzte (lan-sozietateak eta kooperatibak; nolana ere, kanpoan geratuko dira fundazioak eta elkarteak).</p>	5
<p>“Produktuaren ingurumen-ziurtagiria edo enpresa mailan ingurumena kudeatzeko sistema duten enpresen edo erakundeen balorazio positiboa 1 puntu ENACEk egiaztatutako entitate batek ziurtatutako zigilu bakoitzeko”</p>	5
<p>“Energia berriztagarriak erabiltzea: 2 puntu jatorri-bermea duen energia elektriko berdea hornitzeko kontratu bat edukitzeagatik. 8 puntu energia berriztagarria sortzeko instalazio bat edukitzeagatik.”</p>	10

Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 60 puntu eskuratu beharko ditu, arestian aipatutako irizpide eta puntuazioei jarraituz.

9. oinarria. Eskabideak eta nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntza-eskabideei, nahitaez:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena: I. eranskina.
- Inbertsio-taula: II. eranskina.
- Proiektuari buruzko oroitidazkia (III. eranskina).
- Pertsona fisikoa bada: nortasun-agiriaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa bada:

IFKren kopia.

Enpresaren eratze-eskrituren kopia.

Ordezkatze-ahalordearen kopia.

Ordezkatze-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

- Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2 agiria.
- Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo-ordainketaren ordainagiria.
- Aurrekontuak edo, hala badagokio, egitekoak diren inbertsioen fakturak.

Horrez gain, enpresa eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu ahal izango dute, eskabidea baloratze aldera:

- Erakundearen edo produktuaren ingurumen-ziurtagiria edukitzea egiaztatzen duten agiriak.
- Energia berriztagarriaren instalazio bat edukitzea egiaztatzen duten agiriak.
- Enpresa eskatzaileak sinatutako kontraturako energia berriztagarriak erreserbatu izanaren Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren agiria.

10. oinarria. Laguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Honela izapidetuko da proiektuak egiteko ematen diren laguntzen ordainketa:

- Laguntza ematen den unean, laguntzaren ehuneko 80 ordainduko da.
- Gainerako ehuneko 20a, dokumentazio hau jasotzen denean ordainduko da, eta, nolana ere, 2021eko urriaren 15erako:
 - Proiektua egitean gauzatutako jardueren eta lortutako emaitzen txostena.
 - Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatuta (fakturen eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak).
 - Ahal izanez gero, gauzatutako proiektuen dokumentazio grafikoa.

Deialdi honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea, ez justifikatzea edo behar adina ez justifikatzea dirulaguntza itzultzeko arrazoia izango da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan adierazitakoaren ildotik.

Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako aurrekontuaren ehuneko 75 iristen ez bada haren justifikazioa, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da, eta ehuneko 75 hori izango da dirulaguntza kalkulatzeko oinarri berria.

11. oinarria. Laguntza emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

- Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.
- Batzordekideak: deialdiaren xede den gaiko hiru profesional aditu, haietako bat Gasteizko Udalekoa; eta, haietaz gain, beste kide hauek:
 - José María Fernández, Ihebeko ekonomia zirkularreko zuzendaria.
 - Olga Martín, Aclimako zuzendari nagusia.
 - María Fernández, enpresari aplikatutako ekonomia zirkularreko aditua den udal-teknikaria.
 - Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotsa izango du, baina ez botorik.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez eman edo ukatuko dira dirulaguntzak, batzorde teknikoak proposaturik; horrek ez du eragotziko, baina, eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izatea.

Ezarritako balioespen-batzordeetako aditu profesionalak erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko dute alderdi hauek zehaztuz: ez daudela Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen 40/2015 Legean aurreikusitako abstenitzeko arrazoiarik batean ere, konfidentziasuna bermatuko dutela, eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa deialdian finkatutako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko baino ez dutela erabiliko.

12. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik kontatuta. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, ezetsizat joko da dirulaguntza-eskabidea.

ALHAO izango da dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenen erabakien jakinarazpenak egingo diren hedabidea.

13. oinarria. Onuradunen betebeharrak (pertsonek zein enpresak)

a) Emandako laguntza onartzea. Hain zuzen ere, hamabost eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote — eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik kontatuta —, onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.

c) Dirulaguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, aldeztatik idatziz jakinarazi beharko zaio Gasteizko Udalari. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Berariazko baimenaren bitartez baino ez da onartuko.

d) Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

e) Gasteizko Udalari jakinaraztea deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero — horien jakinarazpena jaso bezain laster — Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emana izanik ere. Horretarako dagozkion administrazio edo erakunde publikoaren ebazpen ofiziala aurkeztu behar da.

f) Eskabidea behar bezala baloratu ahal izateko egokitzat jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Udalak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei.

g) Deialdi honetako laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritakoak, eta Gasteizko Udalaren aurrekontuen kargura ematen diren laguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintza oro.

14. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko:

– Proiektuak ezartzeko enpresak bere gain hartutako prestakuntza- eta langile-gastuak.

– Aktibo finkoko inbertsio hauek: Aktibo immaterialak (jabetza industriala eta informatika-softwarea izan ezik), eskualdatze-eskubideak, frankizia-eskubideak, lurak, erakinak, eraberritzeak, eraikuntza- eta instalazio-proiektuak (elektrizitatea, segurtasuna, klimatizazioa, ura...), apaingarriak, garraiorako elementuak, telebistak, telefono-terminalak eta antzekoak.

– Jarduera berriari lotutako bigarren eskuko makina eta ekipoak erostea, bestelako laguntzarik jaso badute edo merkatuko balioa berdintzen edo gainditzen duen prezioa badute.

– Enpresaren ohiko funtzionamenduak sortutako gastuak, edo etengabea edo aldizkakoa den jarduera bati dagozkionak: bulegoko materiala, mantentze-lanak, piezak konpondu edo ordeztzea, tresnak berritzea, promozio-ekitaldiak, bidaiak, publizitatea, otorduak, hornigaiak, alokairuak eta antzekoak.

– Patenteak, erabilgarritasun-ereduak eta industria-diseinuak berri edo aldatzeko gastuak.

– Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zigorak.

– Ibilgetu materiala leasingen bidez eskuratuz gero, bakarrik kuotak lagunduko dira diruz; ez interesak, ez gastuak, ez dira lagunduko.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuen atalean sartuta ez dauden gastu guztiak.

15. oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Gasteizko Udalak ematen dituen diru-laguntzak beste administrazio batzuek edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek emandakoekin bateragarriak izan behar dute.

Modalitatearen arabera ezarritako mugak gorabehera, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera.

Gainfinantzaketarik gertatuz gero, murriztu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela.

17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/15/05/91505.pdf>

II. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/15/07/91507.pdf>

III. eranskina

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/15/06/91506.pdf>